



## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako pertsonentzat zuzenduta dago; beraz, bi bezero talde desberdin izan ditzakegu.

Alde batetik, zerbitzua erabiliko duen pertsona berak eta beste aldetik, beren familiak, hauek izango baitira askotan zerbitzua bere familiartekoari kontratatuko dutenak.

Irizpide geografikoari begira, Bizkaian bizitzea baldintza bat izango da. Gure proiektua garatzen hasi garenez, oraingoz eremu txikiago batera mugatuko gara, Bizkaira, alegia. Hala ere, gure ekimena aurrera egin eta dena espero bezala doala ikusi ahala, gure proiektua beste leku batzuetara zabaltzea gustatuko litzaike.



Cohousing egiten dugunez, gustu berberak dituzten pertsonak elkartzen ditugu, elkar bizitza ahalik eta egokiena izateko. Gure zerbitzua kontratatzen dituzten pertsonak, etxe batera joan baino lehen, galdetegi pertsonal bat betetzeko beharra izango dute. Galdetegi honetan haien izaerari buruzko informazioa eskaini beharko digute, izaera eta bizimodu antzekoa duten pertsonak aurkitzeko. Haien hobbiak, gustuko janaria, maniak, ohiturak, ordutegia... jakingo ditugu galdetegi horren bidez.

Galdetegia bete eta gero, ebaluazio bat egingo dugu gutxi gorabehera irizpide horiek kontuan hartuta bereiztuko ditugu. Ebaluazioa egin eta gero, bakoitzaren kasua aztertertuko dugu, arlo gehiagotan bat egiten duten pertsonak etxe berdinean elkartzeko.

Gure zerbitzuaren kontsumitzaileak ehuneko ehunean 60 urtetik gorakoak eta bakarrik bizi diren adineko pertsonenak izango dira. Hala ere, ondo definitu behar dugu nor den kontsumitzailea eta eroslea, zerbitzuaren erosleak eta erabakitzaileak kasu gehienetan ez direlako kontsumitzaileak, baizik eta beren familiartekoak.

Erosleak eta erabakitzaileak, pertsona berbera izaten dira normalean, baina gure kasuan, orokorrean familiak izango dira haien senideak Co-housing-eko zerbitzua hartzeko erabakia hartzen dutenak eta ordaintzen dutenak ere.

Ezaugarri psikografikoei dagokienez, bakarrik bizi diren eta hainbat arazoirengatik etxebizitza partekatu nahi duten pertsonengana jotzen dugu. Kasu gehienetan, litekeena da pertsona horiek bakarrik sentitzea edo pentsio alturik ez izatea (gehienak erretiratuta edo erretiro-prozesuan egongo baitira), eta, beraz, gastuak partekatu nahi izatea. Nolanahi ere, pertsona horrek prest egon behar du bere bizimodua eta pisukide berriarena uztartzen saiatzeko, eta bere errutinan aldaketak egiteko prest egon behar du, betiere bizikidetzatza atsegina lortzeko.

Gure zerbitzuaren helburua aiton-amonak laguntzean datza. Bereziki Co-housing-ean arituko da, pertsona horiek elkarrekin eta pozik bizi ahal izateko metodo berri bat proposatuz, gure enpresak gune horretan zehazten da eta.

